BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

130

461/2013 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona «Lanpar 2013, Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Funtsa» izenarekin eratuko den arrisku-kapitalaren funtsean parte hartzeko.

Gestión de Capital-Riesgo del País Vasco, SGECR, S.A. sozietatea funts batzuk kudeatzen ari da, enpresa ez finantzarioen kapital sozialaren partaidetza behin-behinekoak edo txikiak izateko edo partaidetza-maileguak emateko. Finantziazio-aukera hori oso mesedegarria dela uste dute enpresek.

Gaur egungo krisiak agerian eta auzitan jartzen du estatuen finantziazio-egitura bera, eta horrek ahalegin publikoa handitzea eskatzen du, jarduera ekonomikoa dinamizatzeko eta gero eta handiagoak diren gizarte-beharrei erantzuteko.

Egoera horretan, Gestión de Capital-Riesgo del País Vasco, SGECR, S.A. sozietateak, sozietatearen helburua betetzerakoan, uste du ezen, gizarte-ekonomiaren inguruan badela negozio-aukera bat, enpresa-eredu gisa ulertzen dena, zeinetan langileen parte-hartze handiagoa gertatzen baita, kapitala, lana eta ezaguera modu konprometituagoan bateratuta. Halaber, uste du ezen, negozio-aukera hori dagoela bai familia-enpresen jarraipen-prozesuetan, bai langile-kopuru handi bat konprometitzea lortzen duten konpainien berregituraketa-prozesuetan. Eta horretan oinarrituta, arrisku-kapitalaren funts berri baten eraketa sustatu du: «Lanpar 2013, Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Funtsa».

Funts horren helburu nagusia da finantzarioak eta higiezinen arlokoak ez diren enpresen kapitalaren behin-behineko partaidetzak izatea. Enpresa horiek, parte hartzerakoan, ez dute kotizatu behar Balore-Burtsaren lehen merkatuan edo Europar Batasuneko edo «ELGA» Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeko gainerako herrialdeetako beste antzeko edozein merkatu araututan. Eta euren inbertsioak bideratu behar dira langileek kapital sozialean parte hartzeko prozesuei laguntzera, eta industria- eta manufaktura jarduerak eta horiei lotutako zerbitzu-jarduerak egiten dituzten enpresetan egiten diren inbertsioetara, betiere, lehentasuna emanez izaera berritzailea duten jarduerei.

Arrisku-kapitalaren funtsak azaroaren 24ko 25/2005 Legean daude araututa, hots, arrisku-kapitalaren entitateak eta horien sozietate kudeatzaileak arautzen dituen Legean. Lege horren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, arrisku-kapitaleko entitateak, izaera juridikoari dagokionez, arrisku-kapitaleko sozietateak edo arrisku-kapitaleko funtsak izan daitezke, eta erregimen komunekoak edo erregimen erraztukoak izan daitezke.

Azaroaren 24ko 25/2005 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, arrisku-kapitaleko funtsak dira nortasun juridikorik gabeko ondare bereiziak, inbertitzaile askorenak, eta horien kudeaketa eta ordezkaritza sozietate kudeatzaile bati dagokio, zeinak jabari-ahalmenak baititu, funtsaren jabe izan gabe. Helburu nagusia da behin-behinean parte hartzea finantzarioak eta higiezinen arlokoak ez diren enpresetan, baita zenbait enpresek jaulkitako baloreetan inbertitzea ere.

Azaroaren 24ko 25/2005 Legearen 10.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, arrisku-kapitalaren funtsak kudeatzeko, sozietate kudeatzaile bat izendatu behar da, aipatu legeari edo Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeari jarraikiz. Eta horretarako, Autonomia Erkidego honek, bere sektore publikoaren barruan, Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, SGECR, S.A. sozietatea dauka.

Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginaren 109.1 artikuluak enpresa-ondarea definitzen du. Lege-testu horren 110.1 artikuluak ezartzen duenaren arabera, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean. Dekretuaren edukiaren baldintza gisa adierazten dira, batetik, helburua, eta, bestetik Autonomia Erkidegoak sozietatean izango duen partaidetza zuzen edo zeharkakoaren ehunekoa.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea «Lanpar 2013, Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Funtsa» izenarekin eratuko den arrisku-kapitalaren funtsean parte hartzeko, 2.500.000 euroko hasierako dotazioarekin. Funtsaren sustatzailea Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, SGECR, S.A. sozietatea izango da.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak funts horretan harpidetuko duen zenbatekoa bi milioi (2.000.000) eurokoa da, hots, hasierako ondarearen % 80, eta dirutan ordainduko da, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren aurrekontuaren kargura, sailburuak emandako agindua betez. Funtsaren ekarpenaren gainerako % 20 ASLE-Euskadiko Lan Sozietateen Taldeari dagokio.

3. artikulua.– Funtsaren kudeaketa eta ordezkaritza Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, SGECR, S.A. sozietateari esleitzea, zeinari jabari-ahalmenak baitagozkio (jabea izan gabe), indarreko legerian ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari eskumena ematea, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean «Lanpar 2013, Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Funtsa» funtsaren eratze-kontratua sinatzeko, sozietate sustatzaileak aurreikusitako moduan, eta, bestetik, funtsa behar bezala eratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzarako beharrezkoak diren jarduerak burutzeko eta beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 17an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.